

Orma urfefsoelatik kontu zahairak

Orma urtetsuen hitz gabeko lekukotasunera jo dut kontu zaharren aztarna bila. Kanpotik begira nago. Aintzinaren arnasa dakar iraupe-naren indarrez. Lehena, gaurkotasunean eta geroan ere ixuri nahi lu-kenaren mezuz datorkit. Ulergaitz, hitz gabe, urteen zeinu hutsez adie-razpen zehatza ematea. Markinako komentua; norbere etxea beti ere unkigarri. Historia luzearen kontatzaile mutu.

A. Eartolomne Madariagaren urratsak

Orma urtetsuetan barneratuz, kronikari berezi baten urratsak ja-rraitzen saiatuko naiz. A, Bartolome Madariagaren orpoz-orpo ibili nahi nuke historia-ataltxo bat gogoratzen.

Historiaren haria, egoitza honetatik aztertuz, une biri deritzet azpimarratzekoak: bata, frantsesak Penintsulan sartu zirenekoa: Na-poleonen aurkako gerratea. Eta bestea, Juan Alvarez Mendizabal libe-ralen ministroaren bidez Desamortizazio-legea eman zenekoa. Orduan, karlisten jaikialdia bizi-bizi zegoen eta kostu izugarrikoak zirenez, Elizaren eta erlijiosoaren ondasundegietara jo zuten. zorrak kitutzera. Erlijiosoak euren etxeak utzi beharrean izan ziren. Josulagunak, bes-talde, atzerri garratza dastatu zuten bigarrenez. Auzi honetan, aipa-garririk bada, Markinako Karmeldarren etxea da, Penintsula osoa kontutan izanik ere, hementxe bihurtu zirelako beste inon baino lehen karmeldar-bizitzara. Gorriak ikusita gero bihurtu ere, jakina!

Hala ere, gaur, gertakari honetaz barik, frantsesak Penintsulan sartu zirenekoaz ihardun nahi nuke. Aukera honen zergatiari errez antz emango dio irakurleak: A. Bartolome Madariaga lehen mailako per- tsonaia eta kronikari dugulako gertakari honetan.

Haren eskutik sorturiko idatzia, eskuizkribua dago Karmeldarren artxiboan. Beraz, hemen ez dugu bada-espada bide lanbrotsuetatik edo ta inoren esanera ibili beharrik. Agiri zaharren iturrira, haien jario garbira hurbiltzea besterik ez dugu. Agiri honen emaile eta gertakarion ardatz A. Bartolome agertzen zaigu, bada. Zer diosku A. Bartolomek eskuizkribu horretan? Ordenako Nagusiaren aginduz, 1808.-etik 1815.era bitartean Markinako Karmeldarretan gertaturikoen berri zehatza. Goazen, bada, bertatik berririk aipagarrienak azaltzera.

1808. urtean etxe honetan ziren guztien zerrenda dakar lehenengo: hogei ta bi koruko eta beste lau anaia etxeko zerbitzu-lanetarako.

1808.eko Maiatzean, lehen Irunan zen Teologiako Ikastetxea Markinara aldatzen da, Ikastetxe hura frantsesaren mende geratu baitzen: 17 ikasle eta hiru irakasle. Markinan iraun zuen Ikastetxe honek, Espainiako kotnentu guztiak ixteko agindua eman zen arte.

Urte bereko irailean, Espainiako gudaostea Bizkaian sartu zen eta Galdakao, Larrabetzu eta Arratian kokatu zen. Frantsesa, berriz, Durango eta Zornotzan. Legua bat eskas bien artean. Eguraldi txarren erruz, ezin aurrera jo etsaiari erasotzeko Espainiako gudaosteak. Zorionez —dio A. Bartolomek— ia ziur haien eskutan jausiko baitziren. Azaroaren 1. an eraso zion etsaiak Durangon eta Zornotzan Espainiako gudalosteari; Dancic-ko Duke zen Lefebre Gudalburuaren agindupean eraso ere. Karmeldarretan —dio A. Bartolomek— bederatziiurrenak egiten zitzaizkiela Karmengo Ama Birjinari, S. Joseri eta Teresa Amari uda osoan zehar Erresumaren eta Erregeren beharrianetarako. Gero karmeldarrek errogatiba hasi zutela koruan. Egunoro egiten omen zen, letania eta salbea abesten zirelarik; baina bazterretan saiatariak ugari zirenez, agitiko aitzakiatzat, urriko euria aipatzen zen... Gabonak arte ekin zioten otoitz-iharduketa honi, herriak aldraka eta gogotsu esku hartzen zuelarik.

Urte bereko abenduaren 25ean, Jose Joakin Gaitan Barroeta, Markinako alkatea komentuko nagusiagana dator eta ixilesn Bizkaiko Gobernariak frantsesez idatziriko gutun baten berri ematen dio. Honela dio gutunak:

«Que era noticioso de que los Frayles del Convento de Marquina eran perturbadores del orden publico; enemigos de la paz; peores que los salvajes; y que a la menor novedad que notase en ellos, atados los condujese a todos a la Villa de Bilbao, bajo toda responsabilidad.»

Karmengo fraileek, euren burua arrisku larrian ikusirik, Bilbora bidali zuten bertako sermolaria —A. Bartolome—, arrisku horren sustraia zein zen jakin eta ea gainera zetorkiena gelditu erazten zuen. Eta bail Zorionez, lehen arakatzeko-saioetan, hara-honaka zebilela, salatariak berak Abril Gobernariari egindako gutuna eskuratzeko zoria izan zuen, bere helbidera iritsi baino lehen. Kontuz-kontuz zabaldu, irakurri eta bere bidean jarri zuen berriro. Argi eta garbi jakin zuen ekaitza nondik zetorren.

Sermolariak, bere arduraz eta eskabidez, Gobernariak Markinara inkisidore bat bidaltzea lortu zuen auzia garbitzeko. Ea ekaitza baretzen zen horrela...

Esan eta egin!: 1802.eko urtarrilaren 11.ean heldu zen On Lino Zaxoa, Dantzic-ko Dukearen Kapeilaua, frantzinkotarra bera. Eskol-taz ondo lagundurik zetorren. Inkisidoreak batzarra bildu zuen Udal-etxean. Gaia, lau galderaren inguruan taxutu zuen, eta hortik garbi zegoen zeintzuk ziren karmeldarrei egozten zizkien erruak:

1. Erlijiosoek Napoleon eta honen anaia Jose I.aren txarrik esan zutenentz.
2. Bizkaiko inguruko herrietan, Jose erregetzat ez onartzeko eta honen agindurik ere ez betetzeko aholkua eman zutenentz.
3. Herri-errogatibarik antolatu zuten ala ez, Napoleon, honen anaia Jose eta haien buruzagi guztiak gerran hil zitezen.
4. Fraile gaizto haiek xaxaturik, printzipe anaien aurka, zegaz eukiz gero —armak euki balitue— inguru haietakoak edozertarako prest zeudena egia ote zen.

Batzarrekoek, auzia zertan zen jakin ondoren, dena iraina eta gezur hutsa baino ez zela adierazi zuten aho batez. Errogatiba batzuk bai egin zirela, Espainiaren ona Jainkoari eskatuz, baina besterik ez. «y así en el concepto de todo este Congreso, quanto contienen dichos capftulos es una pura calumnia e impostura; (...) Anadiendo

que dichos religiosos nada saven incomodar a este pueblo, ni a sus vezinos, ni concurren a casas particulates, a no ser por precisiones

Inguruko Elizateetan ere —Markin Etxebarrin, Barinagan, Berriatun eta Ziortzan— antzerako testigantzak eman ziren karmeldarren aide. On Lino inkisidoreak, batzarrera deitu zien erlijiosoei komentuko Hbumtegian, urtarrilaren 13an. Bere egitekoaren berri eman eta erlijiosoen zuripenak entzun ondoren, hantxe bertan jakin erazi zen salataria nor zen: bertako erlijioso bat: Fr. Tomas de Sta. Teresa, Errioxako Castanares-ko semea. A. Bartolomek luze dihardu honetaz. Zertzelada biziz ematen ditu honen gorabeherak, ondoren datozenak inoren baitan zentzatu daitezen:

«Era este P. de extraordinaria sagacidad, mui conocido en la Provincia y su memoria merece algun lugar en la historia, para escarmiento de los venideros. No es dable en unas cortas apuntes la idea de su genio, de sus hechos, y de su condicion. Extraere una clausula de un memorial, que contra el presento el P. Predicador al Gobernador Abril con fecha de 8 de febrero del afio de 1809».

(Ondoren Fr. Tomas honen bizitza gorabeheratsua azaltzen du. Polizia-nobela batetarako gai egokia eta egiazkoa).

Oharra: Agiri honetako kronikariak hirugarren pertsonan dihardu; bere buruaz mintzo denean ere, beste bat bailitzan, «el P. Predicador» esaten du.

1809.eko irailaren 30an, Karmeldarrei komentua ixteko agindua-
ren berri emango zitzairen. Lekeitioko Unzeta eta beste batzuek oso-
turiko batzorde bat izendatu zen agindu hori Karmeldarrei adierazi
eta bete arazteko. Baina hauetarik gehienek, horrelako agindurik
betetzea euren kristau-kontzientziari ez zegokiola eta kale egin zuten.
Guztiek ez, ordea. Josef Goxeaskoetxea orduan Markinako alkate
zenak eta Bolibarko erretore zen Domingo Urionak, arazoa euren
kargu hartu zuten eta baita zehatz-mehatz bete ere. Hark, Karmel-
darren ondasun, altzari eta tresnen kargu hartu zuen; eta honek, libu-
rutege, sakristia, eliza, eliz-ontzi eta kuadruena. Hauek, komunitatea
liburutegi-aretoan bildurik, 1809.eko irailaren 30ean, paper batzuk
esku artean zituztela erdi-ahoz, zekarren aginduaren kontu eman
zioten; eta hamabosta barru handik irten egin behar zutela.

Berri ematea egin ordukoxe, gelak eta bulegoak irekitzeko agindu

zuten, altzari eta ondasun guztien zerrenda egiteko. Zerrenda zehatza eta araketa zorrotza. Hona zer dioten A. Bartolomek: «Por las ordenes amenazadoras del caso, y por su declarada adhesión a quien representaban, nada se libro de sus manos, sin inventariar, hasta un poco de tinta que encontraron en una jarra esportillada, se llevo a casa el uno de ellos, diciendo que le hacia falta».

Hiru-lau erlijioso, zahartzaroan sarturik, gaisorik eta inorako ez direla zeudela eta haientzat errukia eta laguntza eskatu zitzaizkien, baina erantzun legez etxamon hutsa eta hotza. Haien aldeko idazki bat agintarlei egina genuen —dio kronikariak— eta batzordeko jaunei izenpetzeko eskatu eta eskatu, baina ezta! Biek ere, gero, azken txarra izan zutela diosku A. Bartolomek: Bata, txapel batez buru bi estali nahi zituelako (deabruari ederretsirik Jainkoarekikoa egin nahi zuelako), frantsesek atxilotu omen zuten; bestea, frantsesen aldekoa izanik, boluntarioen eskutan jausi eta astinaldi galanta hartuta zubipe batetan erdi-hilik erdi-ittorik, osta-osta geratu omen zen bizirik; etxean zeuzkan ontzako urreak ere eraman zizkioten.

Agindu hori zela ta, Karmeldarrek aide egin behar izan zuten komentutik. Hau, hurrengo urteko urriaren 14an izan zen. Gauza batzuk, horraitio, ixilpean atera ahal izan zituzten. Hauen artean, Elizgurasoen liburuak eta beste liburu batzuk liburutegitik. Probin-tziako liburutegirik onenetarikoa zen; eliz-jantzi batzuk eta Am a Bir-jinaren zilarrezko koroe bat ere atera ziren. Gauza hauen kargu sermolariak —A. Bartolome berak— hartu zuela eta ondo gorderik euki zituela diosku. Etxean geratu ziren gauzetarik ia ezer ez omen zuten osorik birreskuratu «algunos ornamentos incompletos; quatro 6 cinco Albas biejas, y algunos libros sueltos sin fotro».

Ongile batzuen aipamena dakar gero. Hauen artean, Lekeitioko On Zeledonio Axpe legegizona, eta On Pedro Valentin Alzaa Markin Etxebarriko erretorea.

Predikaria atxilotua

1809.eko Abenduaren 17an atxilotu zuten A. Bartolome sermo-laria eta Markin Etxebarriko Francisco Antonio Alzaa-ren etxean giltzapetu. Bilboko auzitegikoa zen On Ambrosio Egia eta Trigoien eta beronen idazkari, On Fernando Etxebarriaren kontura egin izan zen ekintza hau. Bilbora eraman zuten bahiturapean. Markin Etxe-

barrin, On Pedro Alzaa-ren etxean, haren papertegira jo zuten harrapataka eta zehatz-mehatz arakatu. Era guztitako testiguak bilatu zituzten. «Hasta a las mujerzuelas preguntaban aquellos jueces de lo que el P. Predicador enseñaba en el confesonario» —dio A. Bartolomek.

Aurreko urriaren 14an, Teresa Donearen jai bezperan sermotan esandakoa egozten zioten errutzat, Honela dio hitzez-hitz:

«Por lo que resulta de este proceso contra D. Bartolome de Madariaga ex-religioso Carmelita Conventual que fue de la Villa de Marquina, se le priva de confesar y predicar hasta la pacificación general del Reyno, con advertencia de que en este tiempo se tendrá presente la conducta que haya observado en el intermedio; y el Fiel de la Ante-Yglesia de San Andres de Echevarria, de donde es natural, y en la que debe guardar su domicilio cele su conducta, dando parte al Sr. Presidente de qualquiera desvío, que en el experimente. Y por este su auto con fuerza y efectos de definitivo, y condenandole en las costas. Asi los Sres. Presidente y Vocales del Tribunal criminal lo acordaron, mandaron y firmaron a cinco de enero de 1810. Bilbao.» (Auzitegiko jaunen izenak datoz ondoren).

Karmengo komerntua bien bifartean

Frantsesaren aurkako boluntario batzuk jaikitzen dira Bizkaian. Hauen jokaerak ez zuen izan behar hain egokia eta egiten ziharduten basatikeriak galerazteko, Markinako batzuk armak hartu zituzten, frantsesaren pozerako. Komentua herriko sarreran bertan, egoki-egoki eta bide-bidean dagoenez, zelatariak jarri eta kuartel bihurtu zuten. Horma nagusietan kainoi-zuloak egin eta denbora gutxi barru hor dugu guda-gaztelutzat. Frantsesen guda-mutilak eta bidebatezkoak hortxe zuten ostatu. Haien guda-taldeen toki egina ikusten dugu, babesteko eskubanda, kainoi-zulo gehiago eta gazteluska berri eta guzti.

Gela eta aretoak «biztanle» berrientzat irekiak edo ta hautsiak izan ziren lehenengotik. Harrapataka sartu ziren. Liburutegi, sakristi eta altzarietarik ez zen ezer birreskuratu ahal izan, eliz-jantziren batzuk edo izan ezik. Gauzarik onenak aldendu eta gero, geratzen ziren altzariak subastatu egin zirela entzun nuen —dio kronikariak— eta egia da, izan ere.

Gaspar Jauregi-ren mutilak erasotzen diote komentuari 1811.eko ekainean. Ataritik eta beroni deutsola dagoen lastategitik sartu ziren. Lastategia erre eta euren aldeko batzuk hilak zirelarik, aide egin zuten. Geroxeago, Lekeition egin zuten beste erasoaldi gogor bat eta bertako guda-taldea osorik atxilotu. Zer gertatuko ere, komentuan zeudenek ihes egin zuten beste horrenbesteren beldurrez. Bitarte honetan, eliza egurtegi eta lastategi egina zegoen eta sakristia janariak gordetzeko toki. Korua, gaiso-gelatzat zeukaten; eta gainontzekoa pentsa daiteke nola, jendemodu haren ostatu izanez. «Y el resto de el Convento qual se puede imaginar de tales alojados.»

Boluntarioak sartu eta ondamendia. Frantsesak zeudenean, itxura batetan irauten zuen komentuak. Kainoi-zuloak, eskubandak, ke-zuloak eta horrelakoak egin zizkioten bai lehenengotik zolan zeukan adreiluz. Baina beste triskantza liandirik ez. Beste hauek sartzerakoan, ordea, dena gainbehera zetorren. Barruak ondatu eta ez zen ezer osorik geratu; ez ate, leiho, eskilara ez kutxarik. «La pieza del orno, comun y granero se quemo. Los pisos estaban enteros. Los tejados destrozados, y en parte abiertos. Varias vovedillas cayendo. Los tabiques de unas quince celdas en el corazon de el Convento estaban en pie; los demas derribados. Una puerta de prueba de vala de fusil estaba en la porterfa de fuera con su Have, como esta aun; la puerta de hierro de la Yglesia sin Have abierta.»

Erretaulak eta aldare-mahaiak sasoiz atera ziren Markinako Kabbildoko jaunei esker. Hamabi dira eta oso onak batzuk, Bederatzi erre-aula eta hamaika aldare-mahai, Xemeingo Parrokian eta Mertzedeko elizan jarri ziren behin-behingo. Markin Etxebarriko elizara eramane ziren beste aldare bi. Herritarrek maitekiro gurtzen zituzten irudiok. Karmengo Ama Birjinarena, Xemeingo parrokian egon zen. Gaur egun, guztiak daude bakoitza bere lekuan. Mirestekoa dela —gaineratzen du kronikariak— aldare nagusiko erretaula, S. Jose eta Juan Gurutzekoarena, inora atera gabe bertan egonik hango su eta ke artean, ez direla batere alperrik galdu, eta urre-apaindurek ere lehen bezain diztiratsu irauten dutela.

Geroago elizako kanpae, organu, artxibo eta baratzez dihardu, berri zehatzak emanez.

1813.eko San Juanetan urrundu zen etsaia gure mugetatik. Baina Karmengo komentuaren egoera negargarria zen. Dena zakar-ontzi eta ondamena. Kronikariak (A. Bartolomek) dioenez, bitarte ikara-

garri honetan, beste erlijiosoak urrun zeuden, eta beraz, ez ziren hemen egindako basatikerien lekuko izan A. Bartolome izan zenez, bere jaioterrian bertan egon baitzen frantsesek «erbesteraturik». Bere etxeaz, komentua birjabetzeko ekinahalak egin zituen, baina goikoen baimenik gabe beldur zen.

Halako batetan, berebiziko abagunea azaldu zitzaion, Castafios Jenerala Probintziara (Gipuzkoara) etortzerakoan. Luzaroago pentsatzeari ekin barik, aurkeztu zitzaion Ernanin, idazki bat aldean zuela. Agiri honetan, hitzez-hitz dator, eskuz-esku eman zion gutunak dioena, baina aurrera joko dut.

Erantzuna hauxe izan zen:

«Quartel General de Ernani 10 de Julio de 1813. Luego que esta Provincia disfrute alguna tranquilidad, se atendera como es justo esta solicitud, oyendo al Ayuntamiento de Marquina, e informando la Diputacion para poner en ejecucion los soberanos decretos de las Cortes». Castafios.

Erantzun hau ez zen haren gogo betekoa izan; ezta hurrik ere. Egunak, urteak bezain luze zihoazkion eta dena gerorako uzteak kezka larria sortarazten zion. Bi aldetatik ikusten zuen arriskua: gobernuaren aldetik, komentua erortzeaz ikusirik, inor bizi ezinekotzat jo zezakeelako; eta etxearen beraren aldetik, teiatuak eta konpondu gabe, negua gainera etorritz gero, ondamendia izan zitekeelako. Zori aldiztoaren mendera makurtuz, komentua jabetzea erabaki zuen azkenik. Beraz, 1813.eko abuztuaren 17an komentuko eta baratzeko giltzak eskuratu zituen, aurretiaz Alkate jaunari parte emanez. Honen, pozez zorutzen hartu zuen albistea, eta baita eskupekoa eman ere han ospatuko zen lehenengo mezarako. On Martin Lauzirika zen, orduan, alkate. Geroko lanak eta konponketak honela azaltzen dizkigu kronikariak:

«El dia siguiente 18 de Agosto, poniendo el Santo Habito de la Orden trató el P. Predicador de barrer el Convento. No es detible el gentio que vino sin llamar de la calle, y de toda la comarca con sus azadas, cestas y escobas a barrer el Convento, hasta que lo dejaron todo limpio».

Geroago, teiatua berriztatu zitzaiola —diosku— eta eliza bere ate eta zerrailuz egoki atondu zela, urriaren 3an, erbestaldi ondoren lehenengoz emango zen meza nagusirako. Han izan ziren udal-batza-

rrekoak, herritarrak eta inguruetatik ere asko. Teresa Donearen bederatzimrena, Karmeldarren etxeetan ohi den egokitasunez ospatu zen. Jai horren bezperan etorri ziren priorea eta priore-ordea. Lehenxeago, berriz, komentuko lehendakaria. Hala ere, bakoitzak ahal zuen tokian egon behar ostatuz, artean sermolariak beretzako gela bakarra baino ez baitzuen prestatu. 1814.eko Urtarrilaren 4ean jarri zen Gure Jauna elizan. Urtarrilaren 13an bertako nagusiak etorri ziren, eta besteak ere bai apurka-apurka, hamalauren batentzat tokia atondurik baitzen ordurako.

Karmengo Ama Birjina bere tokira

Herria eta agintariak bertan zirela, Xemeingo parrokiatik Karmeneraino elizbira ospetsu bat antolatu zen Karmengo Ama Birjina bere tokira ekartzeko. Hau dela ta —dio A. Bartolomek— Xemeingo Erretore zen Juan Jose MOGEL-ek izan zuen hitzaldia. Gero, hurrengorik-hurrengora, elizako erretaula eta aldare-mahaiak ekarri ziren euren tokietan kokatzeko. Horrela, egun gutxi barru, eliza lehenagoko egokitasun eta txukuntasunez jarri ahal izan zen. Lehengorik hona organua falta zela, diosku, Mundakara eramana eta hango elizari saldua izan baitzen. Orain berria egiten ari dira —dio kronikariak.

Eliz-jantzi eta ondapen haretatik onik atera ahal izan ziren gauza guztiak, borondaterik onenez, komentura bihurtuz ziharduten hemengorik ezer zutenek. Hori dela eta, ongile batzuk aipatzen dizkigu. Hauen artean, Markinako eliz-batzarrekoak eta beste zenbait pertsona, bakoitzak bere kasa laguntza hori eskaini zutenak. Beren beregi aipatzen du ongileen artean, Markinako Mertzedeko lekaimen komunitatea. Guzti hauek, eta umeek ere poz-pozik bihurtzen zituzten euren esku geratzen ziren komentuko gauzak; baita liburu zahar batzuk eta ere.

Ez dela ahaztutzekoa, dio, eta bai bihotzez eskertzekoa, inguru honetakoek komentua egokitzearren egin zuten lan bikaina. Horrela, haien borondate eta eskuzabaltasun fruituak hor daude: etxeak bere lehenagoko taxu ona du eta barruz berregina izan da. Gehiegizkorik ez, baina behar-beharrezkoa badu. Guzti hori, komentuari ekonomiazko zama handiegirik leporatu gabe eta eskabide berezirik herriari egin gabe; jendearen lan eta borondate eskergaitzak burutua.

Dena-dela, gauzak baretu eta euren onera etorri arren, ipuinetako amaiera liluragarririk ez du auzi honek. Frantsesaren aginte-aldian, herriko lagun bik zerabilten Karmeldarren baratza. Frantsesaren aldeko izanik, jabetzat jotzen zituzten euren buruak. Izen ta guzti aipatzen ditu kronikariak. Eta jakina. giltzak kendu zitzaizkienean, auzitara eramán zuten A. Bartolome; baina Bizkaiko Diputazioak honen aldeko epaia eman...

Luis Baraiazarra

TIL,. Garage ETXEITA *%:C

SOLORAKO TA BASORAKO MAKIfiA BANATZAILLEA

BaserHtarrak: Onako makinarik bear ba'dozue,
merke ta **onak** etxe onetan aurkituko dozuez.

Urrut. 73 04 64-73 05 38

AMOBEBIETA-BIZKAiA